

## **GERNIKA-LUMO / Liburutegiko erabilerak gora egin eta helburuak gainditu ditu**

**Azken hiru urteetako datuak alderatu eta ondorioak "ikusgarriak direla adierazi dute arduradunek.**

OIHANA CABELLO

Azken hiru urteetako datuak alderatu eta Gernika-Lumoko liburutegiaren erabileraren balorazioa egin dute arduradunek, ondorio "ikusgarriak ateraz. Jakinarazi dutenez, erabilerak gora egin du 2007tik hona, eta iaz markatutako helburuetako bat bete eta gainditu egin dutela azaldu dute. Hain zuzen ere, liburutegien Nazioarteko Federazioa den IFLAren (International Federation of Library Associations) gomendioa bete egin du aurten Gernika-Lumoko liburutegiak.

Zehazki, liburutegi publikoek biztanleko bi dokumentu izan beharko luketela zehazten du federazio horrek, eta Gernika-Lumokoak biztanleko 2,10 dokumentu eskaintzen ditu. Guztira, 33.653 dokumentu ditu liburutegiak, 2007an baino 1.245 gehiago. "Horrek esan nahi du hilabeteko 207 dokumentu eskuratu ditugula, batezbeste.

Erabiltzaile kopuruak ere gora egin du. 2007an 2.991 zituen liburutegiak, eta aurten 4.667 ditu. "Beraz, gernikarren %25ek du txartela. Erreserbek eta maileguek ere gora egin dute nabarmen.